

# Espainiako Armada Bartzelonako kaleetan

Soldaduen desfileak protesta ugari sortarazi ditu, eta sortutako istiluetan hainbat lagun zauritu dira

Jordi Pujol Generalitateko presidentea izan da ekitaldira joandako agintari zibil gorena

**A**rmadaren Eguna zela eta, 1.300 militarrek desfileatu zuten Bartzelonako kaleetan atzo. Desfile horren berri izan zutenetik, Kataluniako talde politiko, sozial eta kultural ugari haserre agertu dira, eta ekitaldia gaitzesteko protesta anitz egin dituzte azken astean.

Desfilearen aurkako plataformak emandako datuen arabera, manifestari eta polizia nazionalen artean atzo izandako istiluetan hamar lagun atxilotu eta hainbat zauritu ziren.

Hasiera batean, Gerra Zibilean Francoren tropek egin zuten bezala, Bartzelona goitik behera zeharkatzen duen Diagonal etorbide handitik pasatzeko zen desfilea. Ika-mikak eraginda, okupazio militarren aurkako eta bakearen aldeko plataformek, iritzi publikoa ekitaldiaren aurka jartzea ez ezik, ibilbidea bera aldaraztea ere lortu dute. Izan ere, militarrek eta beren guda tresneria Montjuic aldean bazterturik egon dira. Kataluniako Generalitateak eta Bartzelonako Udalak ere herri ekimenari amore eman behar izan diote, eta joera anbigua izan dute.

Jordi Pujol Kataluniako presidentek desfileak «inongo onik» egiten ez ziola adierazi zuen iragan astean; hala ere, protokoloak agintzen duen legez, bertan egongo zela agindu zuen.

## Desfilearen aurkako ekimen ugari

Desfile militarren aurkako erresistentzia handia izan da. Aste osoko mobilizazioetan milaka pertsonak hartu dute parte. Hala, iragan larunba-



TONI GARRIGA / EFE

Atzo Bartzelonan izan ziren istiluetan hainbat pertsona zauritu ziren Poliziarekin izandako borroketan.

teko manifestazioak hama-bost mila lagun bildu zituen Bartzelonan.

Astea aurrerantz zihoan heinean, agerraldi militarren aurkako ekintzak ere ugarituz joan dira. Manifestazioak, zirkulazio eteteak, kontzentrazioak... Astelehenerik larunbatera, Espainia plazan, 400 bat lagunek kan-

padaldia egin dute, Bakearen Aldeko Plataformak deituta. Josep Delas plataformako bozeramailearen arabera, ekimenaren helburua, «jarrera antimilitarista hedatzea ez ezik, desfilearen aurkako bide politiko berriak zabaltzea» izan da.

## Egun luzea

Atzo, goizeko seietatik aurrera Polizia antimilitaristak

kanporatzen hasi zen. Espainia plazako gertaeren ostean, kanpatutakoek butifarrak osatutako herri gosaria antolatuz Sants auzoan. Ostera, militarrek batuz zihoazen Montjuic aldean. Indarrak berriro bezain laster, 11:00etan, antimilitaristek deituta manifestazioari ekin zioten; helmuga desfilea zen. Poliziak istiluak sortarazi zituen, eta hamar atxilotu eta hainbat zauritu eragin. Istiluak Bartzelonako beste toki batzuetara hedatu ziren. Ordurako, ordea, guztia prest zegoen 12:00etan Armadak desfilea egin zezan Montjuic mendiaren magalean.

Pixkanaka jende ugari agerraldi militarren inguruan batuz zihoan, guda tresneria eta kakiz jantzitako soldaduak ikusteko irrikaz. Denetarik ikus zitekeen: Espainiako futbol selekzioa elastikodun gazteak, frankismoa samintasunez oroitzen ziren asko, turistak eta abar.

Nahiz eta segurtasun neu-

rri handiak izan, Udaltzaingoaren arabera hamar mila pertsonak militarren desfileaz gozatu ahal izan zuten. Denetarik entzun zitekeen hantxe, baina, batez ere, Espainiaren aldeko ohiuak eta Pujolen aurkako txistuak. Francoren garaia gogorarazten zuten beso goratuak ere ikus zitezkeen. Espainiako banderak eskuan zituztela armadaren presentzia sutsu defendatzen zuten emakume birekin topo egin genuen. Haien arabera, Katalunia ere Espainia da; beraz, «armadak eskubide osoa du Bartzelonako kaleetan erakustaldia egiteko». Urtebeteko alaba zeramaten senar-emazte batzuen aburuz, atzoko ekitaldiak «ez zuen gerra konnotaziorik, giza laguntza helburu duen armada» ikusten baitzuten.

Blindatuak, metrailetak eta beste arma mota ugari ikus zitezkeen nonahi. Espainiako bandera handi bat harro-harro zerman beste gazte baten ustetan, «armada Espainiako Konstituzioa defendatzen duen instituzioa da, eta kalean egote-

ko eskubide osoa du». Gainera, bere esanetan, «desfilea arbuizaten dutenek historia ikasi beharko lukete, armadak estatuari egin dion mesedeaz kontura daitezen».

Giza laguntzetan parte hartu ala ez, atzo mila eta hirurehun soldaduk, laurogeita hamaika blindatuk eta

hamabi helikopterok hartu zuten parte berrogeita hamar milioi pezetan baino gehiago kostatzen desfilan. Eguraldia ez zuten lagun izan agerraldi militarrean, eta lainoek eragotzi egin zuten hogeita lau guda hegazkin

irtetea. Arratsalderako, ordea, eguraldiak onera egin zuen, eta berrogei mila lagunek Bakearen Aldeko Plataformak Ciutadella parkean antolatutako jaialdiaz gozatu ahal izan zuten. Besteak beste, Lluís Llach, Maria de Mar Bonet eta Gerard Quintana musikariak desfilearen aurka agertu ziren eta gogotsu abestu zuten.

## Giza Laguntza

Desfilera joan ziren askorentzat, «Armadak giza laguntzaren aldeko lan handia egiten du»

## TXANTXIKU IKASTOLAK

IRAKASLE BAT BEHAR DU

FISIKAn lizentziatua edo  
Goi Mailako INGENIARIA

Curriculumak jasotzeko azken eguna: **ekainaren 2a**

Helbidea: SAN JUAN KALE, 1. 20560 ONATI - Faxe: 943 783188 - E-maila: txantxiku@ikastola.net

Idazkaritzan egun erdiz  
lan egiteko pertsona bat behar du

ENTREPRESA ZIENTZIETAN diplomaturak  
edo Goi Mailako ADMINISTRAZIO ETA  
FINANTZAn tituloduna

Urtzi Gartzia  
BARTZELONA